



Korrika, baina ez presaka

Hilaren 29an hamabigarren Korrika irten zen Gasteiztik, "Mundu bat euskarara bildu" lelopean. Datorren ostiralean, hilak 6, Donostiaratuko zaigu euskararen lasterketa erraldoia, Zube-roan eta Lapurdin barrena ibili ondoren.

Ezpeletatik, Sempere, Azkaine, Urruña eta Hendaia igaro, eta Hego Euskal Herrian sartuko da Korrika. Hilaren 6an goizeko hamaikak inguruan pasatuko dute muga Ipar Euskal Herriko euskaltzaleek. Ondo-ren, Korrikak Gipuzkoako hainbat herri zeharkatuko ditu. Donostiara heldu

aurretik: Hondarrabia, Irun, Oiartzun, Erren-terria, Lezo, Pasai Donibane, Pasai San Pedro eta Pasai Antxo, hain zuzen ere.

Aurreikusi denez, korrikalariak arratsaldeko 15.40etan Donostian izango dira. Altzatzarrak izango dira lasterketari ongietorria ematen lehenak. Ondoren beste auzoen txanda izango da: Intxaurrondo, Egia, Gros, Alde Zaharra, Antigua, Erdialdea, Amara, Loiola eta Martutene. Martutenetik Hernanirainoko bidea hartuko dute korrikalariak eta gaueko 22.44etan Nafarrora iritsiko dira,


**Altzatzarrak
izango dira
lasterketari
ongi etorria ematen
lehenak**

Goizueta herrira hain zuzen ere. Duela bi urteko edizioan 600.000 lagunek parte hartu zuten euskararen lasterketa erraldoian. Gaindituko ahal du milurteko berriko lehen Korrikak aurreko edizioetako jende kopurua!



KALITATEA AURKITU

EGOITZA NAGUSIA: DONOSTIA HIRIBIDEA 68,26. POLIGONOA. ASTIGARRAGA. TEL.: 943 552800



Ziberkorrika eta Korrika Txikia

Aurtengo Korrikak informazio euskarri modernoenei heldu die, izan ere, duela aste batzuk Ziberkorrika jarri zen abian interneten. Horixe da, alegia, aurtengo edizioaren berrikuntza nagusia

Korrika birtuala dela eta, nahi duenak e-mail baten bidez, ziberlekukoa erosi (5.000 pezeta) eta ziberkorrikalaria izan daiteke.

Dagoeneko munduan barrena barreiatuak dauden hainbat euskaltzalek eresia dute beren ziberlekukoa, esaterako, Sidneyko Euskal Etxeak, Londresko London Basque Society eta Bartzelonako Euskal Etxeak. Gainera, atzerrian

dauden hainbat donostiarrek bat egin dute ekimenarekin, esaterako, Leire Diaz kimikariak. Leire Manchesterren ari da ikasten. Aizpea Leizaola ikerlari donostiarrek ere bere ziberlekukoa erosi du Oxfordetik. Berak apirilaren 7an Londresen egingo den Korrikan

parte hartuko du, Erresuma Batuan dauden beste hainbat euskaldunek bezelaxe.

Donostiako Korrika Txikiak

Aurreko urteetan bezala Donostiako auzoetan Korrika Txikiak antolatu dira Korrika heldzen den egunean.

Grosen 10.30etan hasiko da Korrika Txikia (Zuhaiztitik) eta bertan Zurriola ikastola, Mariaren Bihotza eta Zuhaizti-

Hainbat donostiarrek erosi dute beren ziberlekukoa

Oyquendo

- Pintxo aukera zabala: kaxuelatxoak, iberiarrak eta abar
- Garaiko jaki menua
- Eguneroko menua

Okendo kalea 8 • 20004 DONOSTIA
Tel.: (943) 420736 eta (943) 420932

GERDA

INMOBILIARIA

ZURE KONFIDANTZAZKOA

Zelaieta 48. Ierlanda
20007 Donostia
Tel./Fax: 943 29 27 37

ITURRITXO

Taberna - Jatetxea

Gosari, bazkari eta afariak

Giro ona!!

ATEGORRIETA • Tel.: 943-28 70 19



el rincón del bacalao

Bakailaoa gezatua eta prest sukalderako

Herrera pasealekua 44 ALTZA • Tel.: (943) 39.27.32

Biteri ikastetxeek parte hartuko dute. Antiguano ordu berean ekingo diote korrikari, Reno plazan. Erdialdean ere izango da euskararen alde ekingo duenik. 11.00etan jarri da hitzordua, Alderdi Ederren. Ordu horretan jarriko dira abian Intxaurrondo eta Egiako Korrika Txikiak. Lehendabizikoa Mirakruz gainatik irtengo da. Bigarrena, berriz, Gladysenea parketik. Arratsalde partean ekingo diote korrikari Añorgako Amassorrain ikastolako haurrek, 14.45etan, hain zuzen ere. Bi ordu pasatxo beranduago, berriz, Amarako Korrika Txikia irtengo da Ikasbide elkartetik.

Elkartek eta ikastetxeak

Hainbat auzotako ikastetxe eta elkartek bat egin dute Korrikaren aurtengo edizioarekin. Egia eta Parte Zaharra dira kilometro gehien erosi dituz-



ten auzoak. Lehendabizikoan, besteak beste, Arrano elkartek, Aitor eta Lauaizeta ikastolek, Gazte Lokalak, Antxeta aisialdi taldeak eta Joxemi Zumalabe fundazioak bereganatu

dituzte kilometroak.

Parte Zaharrea, berriz, Skaut taldeak, Arrano Beltza, EHE, Herria eta Bagera elkartek, arrantzaleen kofradiak eta Kai-Harripe euskara taldeak. Kilometroen erosleen zerrenda luzea da. Hala ere, euskararen lasterketa luzea da. Beraz, oraindik ere kilometro bat edo beste erosteko garaiz zabilta.

**Donostiako
auzo gehienetan
Korrika Txikiak
egingo dira**

Korrika Festa

Larunbata 31

10.00

Areto Futbol Txapelketa,
Trinitate plazan

11.00

Pilota partidak
Trinitate plazan

13.30

Herri bazkaria,
Trinitate plazan

17.00

Ginkana, Trinitate plazan

18.30

Dantza saioa
Konstituzio plazan

20.30

Triki ta Ke taldearen
emanaldia Konstituzio plazan



- ESTOLDERIA, JARDINAK ETA HONDARTZEN GARBIKETA
- ZABOR ETA PAPER-BILKETA
- INDUSTRIA ALORREKO, ETA IKASTETXEEN GARBIKETA
- KONTROLATUTAKO ZABORTEGIEN USTIAPENA

Ubarburu pasealekua 18 • 27. POLIGONOA • MARTUTENE • Tel.: (943) 46.58.00